



Danborradiaren aurretiko danbor-jotia

Gorabehera batzuekin bada be, klasikua bihurtu xaku Oñatiko jaixetako danborradia. Lehenengo aldiz 1960ko hamarkadan urten ebenetik gaur egunera arte, hamaika herritarrek hartu dau parte San Migel bezperako fiesta-ibillera zarata-tsu horretan, edota aurreko zapatuan kaleraketan danborradan.

Baiña gaurko fotografixiak lehenagoko beste danborrada-klase bat erakusten dosku. Oñatiko musika-bandiak Santa Marinaran eukan *txarangara*, hau da, musika-eskolara, mutiko pillatxua faten zan solfeua eta instrumenturen bat joten ikastera, **Antonino Ibarrondoren** zuzendaritzapeian. Ba, musika-ikasle horrekin danborrada moduko bat antolatu zan, bandiarekin batera herriko pasakalliak alaietako egun eta jai señalauetan. Urte banaka batzuetan iraun ei eben.

1950eko hamarkadiaren akabera aldera ataratako argazki honetan agiri diranen artian ondorengo honeik ezagutu dittugu:

Aurreneko illaran ezkerretik eskumara eta danborra joten: **Jon Kortabarria**; **Jabi Alzelai**; **Iñaxio Inza**; eta **Juan Mari Aberasturi**.

Bigarren illaran: **X. X.**, klarineteduna; **Jabier Galdos**, klarinetia; **Joxe Luis Madinagoitia**, saxofoia; eta **Migel Galdos**, danborrarekin akaso.

Hirugarren illaran: **X. X.**, tronpetaduna; **Tomas Baños**, klarinetia; **Jabier Ugarte**, klarinetia; eta **Roberto Maiztegi**, klarinetia.

Atzekaldian: **Agustin Ugarte**, klarinetia; eta **Ernesto Unzurrunzaga**, klarinetia.

Eskumakaldian dagozen mutikoetatik **Juan Peralta**, **Pedro Biain**, **Anton Elortza**, **Eujenio Baños** eta **Jexux Irizar** identifikau dittugu; eta barrenian **Joxe Mari Uriarte**, **Tomas Arregi** eta **Juan Kruz Zubizarreta**, bestiak beste.

J. E.

Fotografixia Udal Artxiboko Arzuaga Fondokua da eta guri Izar Salaberri artxibozaiñaren bittartez ailegau xaku. Argibidiak, berriz, **Jexux Irizar**, **Iñaxio Inza**, **Ernesto Unzurrunzaga**, **Joxe Luis Madinagoitia**, **Anton Elortza** eta **Iñaxio Ibarrondok** eskuratu doskue. Eskerrik asko danoiri!